

JUAN CARLOS EGUILLOR

Laberinto

2025eko martxoak 1 - irailak 28

Komisarioa: Garikoitz Fraga Angoitia.

Errealizazioa eta muntaketa: Iñigo Fdez. de Nograro - Baulan.

Ikus-entzunezko multzoa lehengoratzeko eta kudeatzeko: Pablo Maraví eta Libe Belandia, UPV/EHUko Arte Ederren fakultateko AKMEKA IT 168-22 ikerketa-taldearen proiektua den Archivo VideoFlux-ekoak.

Beren obrak eskuzabal eskaini dituztenen laguntzaz:

Agurtzane Ortego, Ángel Landabaso, Ángel Santamaría, Aurelio E Garrote, Conchi Maoño, Eguillor Cobeaga familia, Elena Puccini, Germán Jubera, Javier Urroz, José Antonio Nielfa, José María Unsain, José Miguel Sánchez, Julián Presa, Koldo Mitxelena Kulturunea, Lazkaoko Beneditarren Fundazioa, Luis Alberto García, María Eugenia Castellanos, Marisa González, Nati Ortíz de Zárate, Pilar de la Rica, Seve Calleja, Virginia Montenegro...

Ordutegia

Asteartetik larunbatera: 11 - 15 eta 16:30 - 20

Igande eta jai egunetan: 11 - 15

Astelehenetan itxita

Sarrera doan

rekalde

Iparragirre, 21 | 48009 Bilbao

+34 94 406 85 32

www.salarekalde.bizkaia.eus

 **Bizkaia**
rekalde aretoa



Rekalde Aretoak Juan Carlos Eguillor (1947-2011) artista bilbotarrari eskainitako erakusketarik zabalena aurkezten du. Sortzaile polifazetiko hau komikigilea, umorista grafikoa, kartelgilea, liburu, aldizkari eta egunkarien ilustratzailea, haurrentzako ipuinen idazlea, zinema eta telebistako gidolaria, eszenografoa, eta bideo-arte, infografia eta net.art-aren aitzindaria izan zen. Ekoizpen zabal horrek ondo islatzen du "errealitateaz hartu zuen mendekua", irudimena, umorea eta begirada "samur, eszeptiko eta krudel" bat erabiliz, berak definitu zuenez.

Laberinto erakusketak bere obraren ikuspegi bat eskaintzen du, bere ohiko gaien inguruan antolatuta, komiki ezagunetatik hasi eta bere obsesio pertsonalak sublimatzeko egin zituen sorkuntza pribatuetaraino: "Artelanik onenak dira norberarentzat egiten direnak (azalpen-saio bat dira)", idatzi zuen.

Proposamen hau ikerketa sakon baten emaitza da, bila ibili baikara Eguillor lankidetzan aritutako argitalpen askotan, hemerrotekak arakatzen, ezagutu zuten artean datuak eta testigantzak biltzen, bideo galduak berreskuratzen, bere etxean bildutako milaka marrazki eta koadernoak sailkatzen, lehenik Gaztanbide familiak eta gero Koldo Mitxelena Kulturuneak zainduak.

Idatzi zituen ezin konta ahala ohar eta egunkari irakurtzean, etengabe aurkitzen dugu labirintoaren irudia: "Bizi naizen kaos honetan, bizitza den maitagarri gaiztoen ipuin honetan, metafora bat behar dut bizirauteko eta mundua den labirinto engainagarrian borrokatzeko".

Labirintoan sartuz, artistaren lanik bereizgarrienak aurkitzen ditugu. 1970eko hamarkadako prentsako kolaborazioak, Mari Aguirre, Miss Martiartu, Tartarela, Txangurro Marx eta beste pertsonaia batzuekin: *El Correo Español*, *Egin*, *Diario 16*, *Mundo Joven*, *Triunfo*, *Nuevo Fotogramas*... Eguillor harridura sortzen zuen, bere ironia ikonoklastarekin eta komikiaren bilakaera artistikoan lagundu zuen estilo berritzailearekin.

Gero, 1980ko hamarkadan, haurrentzako liburuak ilustratu zituen argitaletxe handientzat, besteak beste, Bernardo Atxaga, Carmen Santonja, Lolo Rico eta Carmen Martín Gaiterekin elkarlanean. Eta bakarka egin zituen *La ciudad de la lluvia*, *El escarabajo y la luna*, etab. Komikiak egiten jarraitu zuen *Pequeño País-en: Cuentos de la Abuelita* eta *Potosol*. Eta *Bilbao la muerte*, *Murder at the Moma*, *Imaginum*, *Poeta en Nueva York* bideoak egin zituen, baita *Menina* (1986) ere, osorik ordenagailuz egindako lehen animazio espainiarra.

Aurrera egiten dugu bere Bilbo mitologikoko marrazkietan, bere Itakan, hura baitzen bere betiko abiaburua eta helmuga, berriz abiatu ahal izateko. Denboraren poderioz, ohartzen gara guztiontzako Euskadi bat defendatu zuela, hori egitea ausartegia zen garaian. Eta 1990eko hamarkadaz geroztik, Max-Bilbao aurkitzen dugu, egilearen alter egoa, onenak emanda, aukeran bere kaxa metafisikoan babes hartuta, fantasia guztiak posible diren birtualtasunean.

Harekin igaro ginen ispiluaren beste alde horretara, Bilboko Barnealde Mehatxatuetara, Itsasadarraren hondoko misterioetara, Ametsen Gauera. Hor ezkututzen dira Berlanga Museoko lan fetixistak eta Burdel Elektroaren eskaintza makurrak. Eta Muscle Circus, gihartsuekiko lilurari eskainia, gaiztakeria askatu, eta Labirintoaren erdialdera eramaten baitu, Lorategi Krudelera, non Minotauroak gordetako oroitzapen ahaztuak ezagutarazten diren. Max-Bilbaok harekin borrokatu behar du irteteko, bere buruari aurre egin behar dio salbatzeko eta aingeru bihurtzeko.

Amaierara iritsida, Memoriaren Antzokira, Omniara.

Kanpoan, harresiz kanpoko basamortuan, aingeru batzuk ikusten ditugu, noraezean zaborren eta porrotari egindako monumentuen artean.

Garikoitz Fraga Angoitia, komisarioa.